



Fratelli tutti

Garizumako barrikuntzarako 5 proposamen

† Joseba Segura
2021eko hauts-eguna

Fratelli Tutti gutunean oinarritutako garizumako barrikuntzaren frutuak

1. Burua eta bihotzak zabalduta
2. Doakotasuna berreskuratuta
3. Alkartera bihurtuta
4. Alkarrizketarako prestatuta
5. Senidetasuna espiritualtasunean elikatuta

1A. BURU ITXIAK

- ❑ ASKORENTZAT MUNDUA HAUXE BAINO EZ DA: NORBERAREN ETEKIN KOPURUA, EDO NORBERAREN USTE BEREKOENA.
- ❑ HEMEN MIGRAZINOA KONTRAESAN EZAUGARRI BIHURTZEN DA: IKA-MIKAK SORTUAZOTEN DITU, UKATZEAK ETA USTE TA AURREIRITZI SAKONAK AZALERAZOTEN DITU.
- ❑ GIZA-TENTSINO HONEN EDO BESTE BATZUEN GAINEAN, UGARIA DA ESZEPTIZISMOA, MESFIDANTZA, FATALISMOA, ETA, BATZUTAN, KONBENTZIMENDU ETIKOETAN USTERIK EZ DABENEN ZINISMOA.
- ❑ PERTSONA ASKO EZ DIRA GAUZA BALIO EKONOMIKORIK EZ DABELAKO, EDO MERKANTZIA LEZ DIRA ERABILIAK (LAN LEHERGARRIA, GIZA-SALEROSKETA, ORGANO SALMENTA...).
- ❑ ZANTZU BAT: BERA BAINO IKUSTEN EZ DABENEN PRISA. ERREPIKATU EGITEN DA SAMARIAR ONAREN HISTORIA.

1B. BURUA ETA BIHOTZA ZABALTZEN

KRISTAU ITXAROPENAK APURTU EGITEN DITU IKUSPEGI ITXIAK, GAINDITU NORBERE EROSOKERIA ETA BIZITZA EDERRAGOA ETA DUINAGOA EGITEN DABEN ASMAMEN HANDIETARA ZABALTZEN DA (FT 55).

GURE PROPOSAMENA: HARRERA EGIN, BABESTU, SUSTATU ETA MIGRANTEAK ETA BAZTERRERATUAK BAZKIDETU (FT 129):

- ❑ KRISTAU MAITASUNARI EZ DEUTSO ARDURA SENIDE ZAURITUA HEMENGOA DAN EDO BESTE ALDE BATEKOA (Lk 10: Samariar onaren parabola; FT 62).
- ❑ JESUSEN DEIA EZ DOGU HURREKOA NOR DAN GALDETZEKO, GEU EGITEKO BAINO HURREKO, DANEKAZ ERRUKITSU (FT 80).
- ❑ HORMATZARRAK ERAUZTEA ESKATZEN DAU JESUSEK ETA ZUBIAK ERAIKITZEA: “Bat da zuen maisua, Kristo, eta zuok senide zaree guztiok” (Mt 23, 8; FT 95).

EZ DAGO DANA GALDUA. JAINKOAK GAUR ERE ONAREN HAZIAK BOTATEN DEUSKUZ, BETI EGIN DAUAN LEZ (FT 54) Abestia

2A. DOAKOTASUNA ZALANTZAN

- ↳ IRUZUR PAREGABEA: "INORK EZ DEUST EZER EMON". BAI, GERO?: KALEAK, ERAIKINAK, AUTOAK, JAKINTZA, DANA DA ERREGALUA.
- ↳ KEXATZE KULTURA: KALTETUAK GARALA USTE DOGU, BABESPEA "ZOR JAKULA" USTE IZANIK, ETA BAITA ZERBITZU GERO ETA GEHIAGO ERE.
- ↳ ERRUGABETASUN TENTAZINOAREN PARADOXA APARTA: BURUASKIAK ETA NORBERE ASKATASUNAZ HARROPUZTUAK, BAINA JAZO DAITEKENAREN ARDURAK HARTZEKO GAUZA EZ DIRANAK.
- ↳ GIZA TIRA-BIRAK EPAI-GAI BIHURTZEA: NEURE ESKUBIDEAK BESTEENEN AURREZ-AUR.
- ↳ ERROTIKO DESBARDINTASUNA: NIRE ESKUBIDEAK, GUZTIZ ONARTUAK, ORAINTXE NAHI DODAZ DANAK, ETA HEMENTXE; BESTEENEK EZ DEUSTE BAPE ARDURA.

2B. DOAKOTASUNA BERRESKURATZEN

- ↓ KONT SOLATUAK KONT SOLATU AHAL IZATEKO (2 Ko 1, 3-7). EMON AURRETIK BETI DAGO DOHAI BAT.
- ↓ ZER DA DOAKOTASUNA? (FT 139-140):
 - ↪ GAUZAK ONAK DIRALAKO EGITEA, BESTE BARIK.
 - ↪ ORDAINIK EDO ONDORIO ARRAKASTATSURIK ITXARON BARIK JARDUTEA.
 - ↪ HARTU-EMON INTERESATUAREN GOSEA GAINDITZEA
- ↓ JAINKOA DOAKO DOHAIA DA: ONENTZAKO ETA TXARRENTZAKO ATARATEN DAU EGUZKIA (Mt 5, 45; FT 60).
- ↓ DANOK GARA ABERATSAK. ON EGIN GEIKE EDO EMON ORDAINIK ITXARON BARIK, GUK EMON AURRETIK DANA EMON JAKULAKO (“Doan hartu dozuena doan emoizue” Mt 10, 8; FT 140).

3A. ALKARTEA ZALANTZAN

- ↓ GIZARTE GLOBALIZATUAK ERRAZTEN DITU, BAI, URRUNEKOEN HARTU-EMONAK, BAINA EZ GAITU SENIDEAGOTZEN.
- ↓ DANONARI, GIZARTEARENARI, ALKARTEARENARI ERASO; NORBANAKOAREN ETA BALDINTZA BAKO ASKATASUNAREN GORALPENA.
- ↓ LEKUZ KANPOKO “INDEPENDENTZIA” eta “AUTONOMIA” ABSOLUTOAK (Dokumentala: La teoría sueca del amor; Bauman: “independentziaren amaieran ez dago zoriontasunik; existentziaren huskeria baino; esangura bako bititza; eta itsasobeteko gogaitza osoa”).

3B. ALKARTEA BULTZATZEN

- ↓ GIZA-ALKARTEAK EMON DEUSKUN GUZTIA ESKER ONEZ AUTORTU
- ↓ GURE KRISTAU ALKARTEAK AINTZAT HARTU. EUREN ALTZOAN SINISTU GEIKE GU BAINO HANDIAGOA DAN INDAR OSASUNGARRIA, ETA AMESTU GEIKE JAINKOAREN AMESA (BURUTAPENAK DINOSKUNA MURRIZTUZ, NORBEREKERIA JANTZIAREN ADIERAZGARRI).
- ↓ POLITIKA AINTZAT HARTU ETA "POLITIKA HOBEAGOA" BULTZATU (V. ATALA). HITZARMEN SOZIAL HUTSA BAINO GEHIAGO DA.
- ↓ "KARITATE SOZIALEAN" OINARRITUTAKO EGOERA SOZIAL ETA POLITIKOA ERAIKI: GUZTION ONA MAITATU, BENETAN BILATUZ GIZAKI GUZTIEN ONDASUNA (182 ZB).
- ↓ ZIRRARA HUTSA EZ DAN KARITATEA, GIZATASUNAREN UNIBERTSALTASUNERA ZABALIK DAGOAN EGITASMO BATEN EGIATASUNAZKO KONPROMISOA BAINO (184 ZB.).

4A. GERO ETA BANATUAGO

- ↓ INTERKONEKTATUAGOAK BAINA EZ LOTUAGOA
- ↓ BARRI GEHIAGOK EZ DAU JAKINTZA HANDIAGOA ESAN NAHI
- ↓ "MONOLOGOAK" DIRA NAGUSI: GERO ETA GATXAGO EGITEN DA BESTEARI ENTZUTEA
- ↓ "ON LINE" KOMUNIKAZINOAK LOTSABAKO ERASOKORTASUNA ERRAZTEN DAU, ETA KOMUNIKAZINO ZUZENEAN EMOTEN EZ DIRAN EZABATZE GENERIKOAK ETA HUMILIAKORRAK.
- ↓ SARE SOZIALEK ALDERDIKERIA ELIKATZEN DABE ETA ENDOGAMIA: GEURE ATSEGINEZKO BARRI ETA IRITZIAK BEREIZTEN DOGUZ, ETA BESTE TALDE EDO SENTSIBILITATEEI ITXI EGITEN GAIAKEZ.

4B. BESTEAK AINTZAT HARTZEN

- ↓ EZIN DOGUZ SAIHESTU BESTEEKAZKO HURTASUNA ETA KONTAKTO FISIKOA: EUREK BAINO EZ DABEZ ERAGITEN BENETAKO GIZA-LOTURAK.
- ↓ HAUXE DA ALKARRIZKETEAREN: ALKARRENGANA HURERATU, ALKARRI ENTZUN, ALKARRI BEGIRATU, ADOSTASUNAK ETA HITZARMENAK BILATU.
- ↓ INOR EZ DA EZ-GAUZA; DANENGANDIK IKASI DAITEKE ZEOZER.
- ↓ GORROTOTIK GORROTOA BAINO EZ DA SORTZEN; EBANJELIOAK KATE HORI HAUSTERA EGITEN DEUSKU DEI.
- ↓ ALKARRIZKETADUN GIZARTE BATEN ADIERAZGARRIAK:
 - ↪ BESTEAK BESTE IRITXI BETEKO IZATEKO DAUKAN ESKUBIDEA AUTORTZEN DAU
 - ↪ BETI AINTZAT HARTZEN DAU BESTEAREN DUINTASUNA ETA EZ DAU INOR BALTZITZEN
 - ↪ EZBARDINEN BATERATZEA BILATZEN DAU, BAKE SENDOAGO BATEN OINARRIAK EZARTEKO
 - ↪ HARTU-EMONETAN "EZTITASUNA" ZAIKTZEN DAU

5. ESPIRITUALTASUNA, SENIDETASUNAREN ELIKAGAI

- ↳ BADAGOZ LAGUN HURKOAZ ARDURATZEN EZ DIRAN ESPIRITUALTASUNAK (HURREKOEZIA IZANIK ASPERGARRI DALAKO, EDO URRUNEKO IZANIK GAUZA EZ DALAKO): ANTZUAK DIRA; EZ DABEZ BIHOTZ GOGORTUAK BIGUNTZEN, EZ BURU ITXIAK ALDATZEN.
- ↳ EBANJELIOAK EZ DAU BAT EGITEN ESZEPTIZISMOAGAZ; JAINKOA ZINTZOTASUNEZ ETA APALTASUNEZ GURTZEAK BIZITZA ERRESPETATZEA SUSTATZEN DAU; PERTSONA GUZTIEN DUINTASUNA HARTZEN DAU AINTZAT ETA GARAPEN OSOA, ERRUKITASUNA ELIKATZEN DAU.
- ↳ KRISTAU ESPIRITUALITASUNA GOGOZKO NAHIZ FISIKO HORMATZARREN GAINETIK DOA, EZBARDINEKAZ TOPO EGITEKO GUNEA ZABALTZEN DITU, BERRADISKIDETZA EREITEN DAU.
- ↳ JESUSEN ALKARTEAK INGURU IREKIAK DIRA, AMATASUNEZKOAK, HARRERA EGIN, BABESA EMON ETA HAZIAZOTEN DABENAK.

ESKABIDE BI ETA ERRONKA BAT GARIZUMALDIRAKO

ESKABIDE BI:

- ↓ LAGUNDU EIGUZU, JAUNA, IZAKIAREN MENPE JARTEN JAUNGOIKOAGAITIK.
Orain 800 urte baino gehiago Asisko Frantziskok bere ikasleei eskatzen eutsen: “euren nortasunari uko egin barik, sarrazenoen eta beste sinisgabe batzuen artera joandakoan [...] ez euela burrukarik eta eztabaidarik sustatu, beti egon eitezala baino Jainkoaren izaki guztien menpe” (FT 3).
- ↓ EGIN GAIZUZ BENETAN, JAUNA, DANEN SENIDE. Charles de Foucauld, guztien anaiak, bere lagun bati: “Egin erregu Jainkoari ni guztien senide izan naiten benetan” (FT 287).

ERRONKA BAT:

- ↓ SENITARTE HARRERAKORRA IZATEKO DAUKAGUN AHALMENEAN URRATS BAT EMOTEKO GAUZA EGIN GAIZAN EKINTZA BAT ZEHAZTU.

DIRAN GUZTIEN SORTZAILEARI OTOITZA

Gizateriaren Jaun eta Aita, duintasunean gizaki guztiak bardinak egin dituzuna, isuri gure bihotzetan senidetasun espiritua.

Bultzatu gaizuz berralkartzera, alkarrizketara, justiziara, bakera.

Bultzatu gaizuz gizarte osasuntsuagoak eraikitzen, eta mundu duinago bat, goserik, pobreziarik, gogorkeriarik eta gerrarik bakoa.

Zabaltu daitela gure bihotza herri eta lurreko erkidego guztietara, bakotxarengan erein dozun ontasuna eta edertasuna autortu ahal izateko, batasun loturak eta alkarregazko egitasmoak eta itxaropenak estutzeko. Amen.

SENIDEEN ARTEKO ESPIRITUALTASUNA: AIPUAK 1

- ▶ (Asisko Frantziskok) hauxe ulertu eban: «Jainkoa maitasuna da, eta maitasunean irauten dauanak Jainkoagan irauten dau» (1 Jn 4, 16) (FT 4).
- ▶ Kainek suntsitu egiten dau bere anaia Abel, eta Jainkoaren deiak oihartzun egiten dau: «Non da zure anaia Abel?» (Has 4, 9). Erantzuna geuk sarri emoten doguna izan zan: «Ete naz ni, ba, nire anaiaren zaintzaile?» (Ft 57)
- ▶ «Esan eiezue guztiei zeuei esatea gustatuko litxakizuen lez, horixe da-eta Legea eta Profetak betetea» (Mt 7, 12). Dei hau orokorra da, danak hartu nahi ditu, gizaki diralako baino ez, Gorengoak, Aita zerukoak «txarrentzat eta onentzat ataraten daualako eguzkia» (Mt 5, 45). Ondorio lez hauxe eskatzen da: «Izan zaiteze errukitsuak, zuen Aita errukitsua dan lez» (Lk 6,36) (FT 60).
- ▶ ... Lehenengo kristau alkarteek talde itxi eta sakabanatuak eratzeko tantazinoaren aurrean, Paulok bere ikasleak euren artean «eta guztiekaz» karitatez jokatzera bultzatzen zituan (1 Tes 3, 12), eta Joanen alkartean senideei harrera on egitea eskatzen zan, baita «joanean joiazenei ere» (3 Jn 5). Kontestu honek lagundu egiten dau Samariar Onaren Parabola ulertzen: maitasunari ez deutso ardura senide zauritua hemengoa ala beste alde batekoa dan. Holangoxe maitasuna dalako: «bereizten eta banantzen daben kateak eteten dauana, zubiak eraikiz; danok geure burua etxekotzat daukagun familia eraikitza garoazana. [...] Errukia eta duintasuna zer dan dakian maitasuna» (FT 62).
- ▶ «Atzerritar nintzan eta harrerea egin eusten» (Mt 25,35). Besteen zoritxarrak bereak balira lez hartzeko bihotz irekia eukalako esan eikezan holango berbak Jesusek. Hauxe inoan san Paulok: «Poztu zaiteze pozik dagozanekaz eta egin negar negarretan dagozanekaz» (Erm 12, 15).
- ▶ ...badagoz sinistunak euren handitasuna euren ideologia besteei ezartean datzala uste dabenak, edo egia gogorkeriaz aldeztean, edo euren indar-ahalmenak agertzean. Sinistun guztiok autortu behar dogu hauxe: lehenengo ta behin maitasuna da, inoiz arriskuan jarri behar ez dana maitasuna da, arriskurik handiena ez maitatzea da (ik. 1 Kor 13, 1-13) (FT 92).

SENIDEEN ARTEKO ESPIRITUALTASUNA: AIPUAK 2

- ▶ Hauxe inoskun Jesusek: «zuek senide zaree guztiok» (Mt 23, 8) (FT 95).
- ▶ Doako senidetasuna bizi ez dauanak, bere bizitza salerosketa egarriduna bihurtzen da, beti dago emoten dauana eta ordeztu hartzen dauana neurtzen. Jainkoak, ostera, doan emoten da, zintzoak ez jakozanei ere laguntzeraino, eta «txarrentzat eta onentzat ataraten dau eguzkia» (Mt 5, 45). Zeozergaitik gomendatzen eban Jesusek: «Limosna egiterakoan, ezkerreko eskuak ez bai jakin eskumeak egiten dauana, zure limosna isilpean gelditu daiten» (Mt 6, 3-4). Bizia doan hartu dogu; ez dogu ezer ordaindu. Danok emon geike, ba, ezelango ordainik itxaron barik, on egin on egiten deusagunari horrenbeste eskatu barik. Horixe esaten eutsen Jesusek bere ikasleei: «Doan hartu dozuena, doan emoizue» (Mt 10, 8) (FT 140).
- ▶ JesuKristo inoiz ez gaitu deitu gogorkeria edo intolerantzia sustatzera. Harek ageri-agerian gaitzesten eban besteen gaintetik jarteko gogorkeria erabiltea: «Zuek badakizue: herrietako buruzagiek menpean hartzen ditue herriak, eta handi-mandiek euren agintea ezarten deutsee. Zuen artean ostera, ez bedi horrela izan» (Mt 20, 25-26). Beste alde batetik, Ebanjelioak parkatzea eskatzen dau «hirurogeta hamar bider zazpitan» (Mt 18, 22) eta adibidetzat parkatua izan zan barru bako morroia jarten dau: berak ez ekian beste inori parkatzen (ik. Mt 18, 23-35) (FT 238).
- ▶ Itun Barriko testuetan... arerioei gozotasunez egiteko gogor gomendatzen da (ik. 2 Tm 2, 25). Edo eskatzen da: «Ez daiela inor iraindu, ez daitezala oldarkor izan, maitekorak baino, guztiekaz apaltasun handia agertuz. Geu ere lehen [...] gorrotagarriak ginan-eta» (Tt 3,2-3). Apostoluen Eginak liburuan hauxe esaten da: Agintariren batzuk aurrean erabilezan ikasleak «herri guztiak aintzat hartuak ziran» (2,47; cf. 4,21.33; 5,13) (FT 239).
- ▶ Egia esan «maite ez dauanak ez dau ezagutzen Jainkoa, Jainkoa maitasuna da-eta»(1 Jn 4,8) (FT 283).
- ▶ Eta, jakina!, Samariar Onaren Parabola (Lk 10, 25-27). Berari eskeintzen deutso FTK II. atala.